



## Quieren acabar con IRALE

Joan den martxoaren 2an bildu zen irakaskuntza pribatuaren arloko IRALEko Jarraipen Batzordea. Aldez aurretik, STEE-EILASek data aldaketa eskatu zuen, egun hartan ekitaldi sindikal garrantzitsua genuelako ELA, LAB, ESK, HIRU eta EHNE sindikatuekin Madrilgo Gobernuaren asmoen kontra (erretirorako adinaren atzerapena, eta lan-merkatuaren erreforma). Ez zuten, hargatik, data aldaketa onartu eta bilera gehiengo sindikalik gabe egin zen.

STEE-EILASek aspaldian salatu zuen 2010eko Aurrekontuetan Hezkuntza Sail berriak egindako murrizketa izugarria IRALEko ordezkapenen atalean -%33 baino gehiago-. Murrizketa hau zerikusi zuzena du euskalduntze atal guztietan (Ullibarri, Normalkuntza...) gertatu den politika presupuestaria murriztatzailarekin.

Hezkuntza Sail berriak hankaz gora jarri du IRALE guztiz alderantzizko planteamenduak zeuden une berean. Kalitatea hobetzeko bidean, etengabeko prestakuntzaren bitartez urratsak eman behar direla esaten den une berean, kupoak gutxitu egin du, ikastaroen iraupena laburtu (3 hilabetetik 1,5era R400ean, eta 3 hilabetetik hilabete batera R500ean eta R600ean), zehaztu gabeko ikastaroak sortu (R700), aukerak murriztu (R300 ikastaroak txanda bakarra izango du lehenengo hiruhilabetean)...

Onartezina da ez bermatzea, dagoeneko (ikasturte honetan) IRALEN dauden ikasleen jarraipena. Onartezina da ere, R300 ikastaroetarako kupoak mantentzeari uko egitea edo patronalari diru-laguntzak ematea araututa dagoenaren gainetik.

Hezkuntza Sailak atzera egin behar du. Irale jaio zen behar batzuei erantzuteko eta behar horiek ez dira oraindik amaitu. (Zer gertatzen da Administrazio eta Zerbitzuetako langileekin, 0-3 zikloko jendearekin edo Heziketa Bereziko Hezitzaileekin?)

### IRALE DEIALDIA (MURRIZTUA)

Eskaintzen diren **ikastaroak** (lehen deialdi honetan):

- o 2010eko udakoak (euskalduntzekoak)
- o 2010-2011 liberazio gabekoak (euskalduntzekoak)
- o Urteko liberazioak U1,U2 eta U3 (euskalduntzekoak)
- o R-300 (liberazioa irailetik abendura, txanda bakarra izango da)

Eskatzeko **epea: martxoaren 8tik 22ra** (biak barne)

Informazio gehiago eta eskaera orria hemen:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/es/contenidos/informacion/dih2/es\\_2089/irale\\_2010\\_2011.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/es/contenidos/informacion/dih2/es_2089/irale_2010_2011.html)



## Quieren acabar con Irale

El pasado 2 de marzo se reunió la Comisión de Seguimiento de Irale para la enseñanza privada. STEE-EILAS había solicitado el cambio de fecha dado que ese día tuvimos un acto sindical conjunto con ELA, LAB, ESK, HIRU y EHNE en contra de los planes del gobierno de Madrid (retraso de la edad de jubilación y reforma laboral). Casualmente, dicho cambio no se nos concedió y la reunión se hizo sin mayoría sindical.

STEE-EILAS ya había denunciado el recorte brutal –superior al 33%- que en la partida de sustituciones para IRALE había aprobado el nuevo Departamento de Educación en los presupuestos de 2010. Ese recorte hay que contextualizarlo en la política presupuestaria restrictiva para las partidas de euskaldunización (Ulibarri, normalización...)

El nuevo Departamento ha puesto patas arriba Irale justamente en la línea contraria a la que se estaba planteando hasta el momento. Cuando se hablaba de la necesidad de mejorar la calidad mediante el reciclaje permanente, reducen cupos, acortan la duración de los cursillos (de 3 a 1,5 meses en R400 y de 3 a 1 mes en R500 y R600), crean cursillos dudosos (R700), reducen posibilidades (los R300 serán únicamente el primer trimestre)...

Indudablemente es inaceptable que no se garantice la continuidad de las personas que ya están en IRALE el presente curso. Igualmente es inaceptable que se cierren las puertas al mantenimiento de los cupos de R300 o se subvencione en esta cuestión a las patronales muy por encima de lo que está establecido.

El Departamento debe dar marcha atrás. Irale nació para cubrir unas necesidades y éstas aun no están satisfechas (¿Qué pasa con el Personal de Administración y servicios, el del ciclo 0-3 o las Especialistas de Apoyo Educativo?)

### CONVOCATORIA DE IRALE (AMPUTADA)

**Cursillos** que se ofrecen (en esta primera convocatoria):

- o Verano de 2010 (euskalduntzekoak)
- o 2010-2011 sin liberación (euskalduntzekoak)
- o Liberaciones anuales U1, U2 y U3 (euskalduntzekoak)
- o R-300 (liberación de septiembre a diciembre, único turno)

**Plazo** de presentación de solicitudes: **8-22 de marzo** (inclusive)

Más información y hoja de solicitud, aquí:

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/es/contenidos/informacion/dih2/es\\_2089/irale\\_2010\\_2011.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-euskcont/es/contenidos/informacion/dih2/es_2089/irale_2010_2011.html)